

Gure mendea-tik gure mendera

DUELA HIRUZPALAU ASTE egin genuen ARGIAko Akziodunen Batzarra, eta 19 langile eta Ametzagaña Taldeko bi ordezkariak bildu ginen bertan. 1992an SAL gisa eratu ginenetik inoiz ikusi gabeko langile-bazkide kopururik handiena, ARGIAko langileen %90etik gora. Eta bazkidetza egitea -3.000 euro-boluntarioa da soldata txikia den enpresan. Maila horretan, pozarren gaude, bai horixe.

Salbuespenak albuespen, komunikabideen menpekotasuna gero eta handiagoa denean, langileak proiektuaren jabe izatea beti da askatasun bermea. Agindurik ez jasotzea ederra da eta proposamen-agindu iradokiari muzin egitea areago. Horrek badu prezioa, jakina, sarri-sarri garesti ateratzen zaigula proiektu honetan jardutea, eta ez dirutan bakarrik: ostikoak, bihotzera zuzendutako labankadak, barne arazoak, garai bateko aldizkariaren eredu krisia, gure berezko ahuldadeak... Lekurik ez genuela iragarri zitzaigun aspaldi, baina bizirik jarraitzen dugu, indartuak eta osasuntsu.

Estu bai, ohi legez, baina egungo krisiaren aparretan hobe moldatzen da krisiaren magalean hazi eta bizi izan dena. Krisi bikoitzaren aurrean -ekonomikoa eta prentsarena-, ez dago biziraupenerako bermerik, baina iraganean langile-jabeen formula giltzarri izan bada areago etorkizunerako.

Gizartearen garapen aurrerakoiak sormena behar du eta sormenaren zabalkundeak komunikazioa. Lotuta dira: sormena, garapena, komunikazioa. Informazioa eta analisisia dira gure komunikazioaren ezaugarri nagusiak. Azkartasuna eta datu uholdeen aroan, nola sinetsarazi herritarrari nork bere burua informatzeak ahalegin berezia eskatzen duela? Denbora eskaintzea? Diru apur bat akaso? Gogoia, finean?

Nola ulertu bestela Somaliako piraten jardunak baduela zerikusirik gure kontsumo maila hilgarriarekin? Nola adierazi irakurleari historia ez dela amaitu, kapitalismoaren alternatiba eraikitzea posible dela eta asko direla horretan ari direnak? Analisi zorrotza eta ikuspegi kritikoa jorratu barik, nola ulertu Euskal Herrian armak behingoz bazterreratzeko unea heldu dela? Nola ulertu eta barreiatu euskaraz bizitzeko borondate hori gauzagarria dela? Nola azaldu dirua ezin dela gure bizitzaren gidari eta helburu nagusi bilakatu? Hori guztia eta beste asko ulertzeko, zuk ondo dakizun moduan irakurle, informatua egon



DANI BLANCO

Xabier Letona
ARGIAko zuzendaria

behar da. ARGIAk ez dizu dena azalduko -ez du nahi eta ezin du-, baina bai entresaka garrantzitsua.

Paperezko prentsaren mundu mailako krisiak gure jardun osoa berraztertzea behartzen gaitu, eta Internetek duen garrantzia are eta serioago barneratu. Argia.com-ekin duela hamabi urte heldu genion apustuari, geldo baina pauso tinko eta sendoz, geratu barik. Beharko dugu euskarri berrietara eten barik egokitu, baina ez gaitzala fatalismoak jo: neurri handi batean papera ere guk gura duguna izango da, kazetariok, erosleok eta irakurleok. Eta errealitateari zor, komunikazioaren munduari dagokionez behintzat, gaur gaurkoz, oraindik ere nagusiki paperak sostengatzen du Internet.

Euskarazko komunikazioan gu geu gara muina, berau egiten dugun langile, elkarte eta enpresak alegia. Gure medioen etorkizuna gure baitan dago batez ere: informazio ereduari, kalitateari, konpromisoari... Baina krisi egoera orokor honek laguntza eskatzera ere behartzen gaitu, batez ere publikoak ez garen euskarazko medioak. Laguntza eskatu eta aldarrikatu konplexurik gabe, gure garrantziaren jakitun izanda. Laguntza herritar euskaldunei, eta laguntza batez ere erakunde publikoei. Bankuak salbatzeko, autoen salmenta bultzatzeko, etxeko altxariak, elektratresnak, etxeko kristalak... horietarako milioi euro asko bideratzen den bitartean, euskarazko komunikazioa azken urteetako diru laguntza fluxu bertsuan dago, batzuk zerbait gehiago jasoz eta besteak gutxiago (ARGIAk adibidez aurtan 27.000 euro gutxiago Eusko Jaurlaritzatik).

Mitoa da euskaraz bizi garela etorkizuneko Euskal Herri euskalduna egiteko. Euskaraz bizi gara, batez ere, hala nahi dugulako, horrek asetzen gaituelako, hala gus-tura bizi garelako, finean, halakoak garelako. XX. mendearen hastapenean ekin eta ARGIAk Gure mendea egin zuen duela hamar urte sasoi honetan, eta beste hamarrera gure mendea egingo duelakoan nago.